

## Bruno Soto Espainiako txapeldun 17 urtez azpikoan

Junior mailan, 20 urtera arte, lortu ebazan halterofilian Espainiako hiru urrezko dominak urrietan, eta bere kategorian faboritua zan zemendiaren 21ean jokatu zan 17 urtez azpiko kategoriako Espainiako Txapelketan. Arrankadan, 120 kilo altxau ebazan, denpora bitan 151 kilo eta guztira 271 kilo. Marka horreekaz, kirolari lemoaztarrak, bere kategoria eta pisuko errekorra apurtu eban modalidade baktotxean. **15. orrialdea**



**Amorante, Suger eta Futbolariak eta printzesak Diman**

17. orrialdea

## Euskerearen Nazinoarteko Eguna eta Euskaraldia

Euskerearen Nazinoarteko Eguna, abenduak 3, Euskaraldiaren bigarren edizinoari emongo deutso amaiera.

**H**ainbat ekitaldi antolatu ditue herrietan egun horretarako udalak eta herrietako alkarteak. Muralak margotu, magia ikuskizunak, txistulariak, ipuin irakurketak, jantza ikuskizunak eta kontzertuak, beste gauza batzuen artean, animauko dabe jentea, euskeraz egitera ez bakarrik Euskaraldian, eguneko 365 egunetan baino. Diman, Aukeran Dantza Konpainiak, *Maurizia naiz* ikuskizuna eskainiko dau.

Euskaraldia lehenengoz egin zanetik, sano lotuta egon da Euskerearen Eguna. Izan be, bien helburua euskerearen erabilera bultzatzea da; hau da, jentek euskeraz, "gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin" egitea, hain zuzen be. **5. orrialdea**



## Kelvion burrukan lanpostuen alde



**Z**emendiaren 27an, manifestazio jentetsua egon zan Igorren, Kelvion enpresako Igorreko lantegia ez zarratuteko eskatzeko. Bertako beharginak greba mugabakoan dagoz, enpresa zuzendaritzek itxiera eta bertan lan egiten daben 73 beharginen kaleratzeko enplegu erregulazino espedientea aurkeztu ostein. Eskualdean enpresa asko zarratu dirala eta beste sektore batzuen egoera txarra be salatu eben. **8. orrialdea**

### UBIDE

## Ubidek aho batez onartu ditu 2021erako aurrekontuak

2020koa baino %8 txikiagoa da baina jarduera soziokulturetarako diru partidea mantendu egin dabe eta azpiegituretarako, handitu.

Ubiden diru sarrera nagusia BFAko Udalkutxakoa izaten da eta COVID-19aren eraginez, hau txikiagoa izango dala aurreikusten dabe. Honek aurrekontuetako oin arteko goranzko joerea eten egin dau. Diru sarrerak eukiteko beste baliabide batzuk erabiliko ditu Udalak. Berbarako, Udal baso bat botatea ebatzi dabela azaldu deutso BEGITUri Iñaki Beobide alkateak. Hau 60.000 euro inguruko diru sarrerea izango litzateke. **5. orrialdea**

### IGORRE

## Azalpenak eskatu deutzaz Espainiari NBEk Costumerori ustez GASa erabilita alabea kendu izanagaitik

Nazino Batuetako andren kontrako indarkeria eta bere kausa eta ondorioen errelatoreak idatzi bat publikau dau bere kezka adierazoz. **7. orrialdea**

**EKIN** eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
 eraiketak@construccioneseekin.com

### ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Herrietan konzentrazioak egin ziran indarkeria matxistearen kontra

Andren Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazinoarteko Eguna hari- ra, zemendiak 25, hainbat ekintza egin ziran herrietan eta egunean bertan konzentrazioak egon ziran. Abenduko lehenengo asterako ikuskizun bi dagoz programautan; bata Areatzan eta bestea Bedian. **10. eta 11. orrialdeak**





## ZEURE BERBEA

### Kalean uso, etxean otso

Ez da horrenbeste denpora pasau, 3 urte bakarrik, Otegi jaunaren sare sozial baten hurrungo mezu hau irakurri ahal izan nebanetik: "EAJ-k arazo bat du. Herri honetako abertzaleei aurpegira begiratu behar die eta Espainiako kontuak PP eta PSOErekin aterako dituztela esan".

Oindino gitxiago behin eta barriz errepikatu izan dan esaldi hau entzun nebanetik, urte bat bakarrik: "EAJ dilista plater bategatik saltzen da Espainian".

Koronabirusak aldakorra izatearen ezaugarria dauka eta, ikusten dodanez, EH Bilduk be bai. Denporeagaz konturatu ahal izan dira 40 urte baino gehiagoan euskal herritarren interesen alde jokatu izan dauka EAJ-k Madrilén, oin eurak aldarrikatuten dabena. Ondoetorriak! Berandu, baina ondoetorriak!

Ha-ta guzti be, oindino ez dakigu Espainiako aurrekontuen aldeko ustezko boto horren ostean zer dagoan, zer dan eurak horrenbeste errepikatuten daben

"herritarren eskubideen alde" egin daben lana. Baiezko hutsa? Mami bako baiezkoa?

EAJ-ren aldetik, bere baiezkoaren ostean badago mamia, badago edukia. Besteak beste, Dieselaren zerga ez igotea ebaztearen alde dagoz, beste askoren artean, lerro gitxi honeetan aitzeko lekuri ez daukadanak. Adibide batez hobe ulertuko da: Espainiako gobernuak ezarri gura dauan zergaren ondorioz, 50 litroko depositoa daukan auto batek, 2-3 euro gehiago ordainduko leukez hori adostuko balitz. Argi eta garbi ikusten da beraz alderdi bakotxaren postura zein dan: hutsikeriaren aurrean, ekintzak eta errealdadea.

Eta, nire galderea da: Euskadiko aurrekontuak, Espainiakoak baino sozialagoak eta zabalagoak izanda, zein izango da euren jarkerea? Baiezkoa? Ezezkoa? Abszentsinoia akaso?

Ez dakigu hemetik hilabete batera koronabirusaren egoera zein izango dan. EH Bildurena be ez. Ikusi beharko dogu.

MAITANE IPIÑAZAR

Zure ertxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Zantzo



Pozaren pozez egindako irrintziari edo alaitasunezko oihu indartsu eta luzeari zantzo esaten jako (zantzóa, ahoskatuta). Gero eta gitxiago entzuten dogun berba hau pluralez erabilten da gehienbat. Berbarako: "Lehenago gazteak Oroko erromeriara joaten ziran zantzoka eta kantari egun horretan ez zalako etxeko beharrik egin behar!". Barre berbeari lotuta be erabilten da askotan, barreak zaratatsuak diranean: barre-zantzoak, algara handikoak izaten dira. Amaituteko, gure toponimian be agertzen da zantzo berbea: Dimako paraje baten izena Zantzoleku da.

## ERETXIA

### Mitoak desmitifiketan

Argaltzeko gosea pasetea besterik ez dago". Baleiteke baieztapen hau dieta murriztaileen eta gabezia dietetikoaren inguruan doguzan ezagutzakaz erlazioz edo-eta baleiteke gosea pasetea, gehiago argaltzeagaz lotzea.

Ondoren ikusiko doguzan errazoi askorengaitik baieztapen hau erreala ez izateaz gainera, ezta biderik eraginkorra elikadura ohitura osasuntsuz luzaroan disfrutetea gura badogu. Gose fisiologiko edo-eta errealar ez badeutsagu behar dan moduan erantzuten, umore txarra edo-eta emozino negatiboak azaleratzea eragingo deusku eta ondorioz honek jate emozionalera bultzatuko gaitu; jate emozional horrek elikagaien aukeraketa desegokiagoak egitera bultzatuko gaitu eta ondorioz gure gorputzak beharrezko dituan nutrienteen gabeziak eragin. Nutrienteen gabezia horrek, eragin zuzena izango dau gorputzeko masa muskularraren galeran eta kontuan hartuz gorputzeko masa muskularra dala gure organismoaren zatirik aktiboena; metabolikoki berba egiten dogunean metabolismoa murriztea dakar. Bestalde gosea pasetea be ez da oroitzen gozo/on moduan gertatzen gure buruan eta ondorioz gorputz konposaketa hobetu gura dan bakotxean oroitzen negatibo horrek azaleratuko dira.

"Neurritz baina danetatik jan behar dogu". Elikadura industriak behin eta barriz errepikatzen deuskun esaldi bat izateaz gainera, osasun arloko espezialistak be hainbat aldiz jarraitutea gomendatu deuskuen egiaztapena da. Honetan guztionetan non dagoan arazoa galdetuko deusazue zeuen buruari. Inoz identifikatu edo-eta zerrendatu dozuz egunean zehar jaten dozuzan elikagai ultraprozesauak? Edo-eta inoz hausnartu dozu zer edo-eta zein dan neurritzko neurri hori?

"Gauetan karbohidratoak kon-



**NAROA ESPARZA**  
Nutrizionista

sumiduten badoguz, gizontzea eragingo deuskue". Zer uste dozu egiaztapen honen inguruan?

Egiaztapen honetan hasteko honako puntu bi honek argitzea ezinbestekoa izango da.

1. Karbohidratoetan aberatsak diran elikagai guztiak ez dira bardinak. Kalidadezko karbohidratoak elikagai fresko edota prozedura minimo bat jasan daben elikagaietan topau daiegun, esate baterako barazki, lekale, tuberkulu edota zereal integraletan; aldiz, kalidade bajuko karbohidratoak eskaintzen deuskuen artean gailetak, ogi industrialak, opilak, patata prieduak... topau daiegun. Atzen honek kalidade bajuko osagaiak eskaintzen deuskuez, azukerak hain zuzen be.

Bestalde, kalidadezko karbohidratoak kalidade bajuko karbohidratoak alderatuz, digestino, absorzino edo-eta metabolizazio prozesuak be sano desbardinak izango dira.

2. Kontuan hartzeako beste puntu bat, karbohidratoen kalidadeaz gainera, konsumo sarritasuna be bada.

Honen guztionengaitik ondorioztatu leikegu kalidade nutrizional bajuko karbohidratoak eragiten dabela gure pisu igoeran eta beraz honek konsumidutako orduan, malgutasunagaz jokatu behar dogula.

"Ez da gomendatzen fruta desbardinak otordu baten nahastea". Kontsumidu leikeguzan kalidade oneneko elikagaien artean egon arren, hainbat mito dagoz fruten inguruan. Edozein frutaren konposizioari jagokonean ezaugarri oso antzekoak dituela antzeman daiegun, hau da, gehien bat ur eta

zuntzean aberatsak izanik aldaketaren bat edo beste antzeman leikegu bitamina edota mineralai jagokienez. Fruta azidoak (laranja, mandarinea, anana, sagar berdea...) edota fruta gozoak (banana, sandia, melokotoia) ez konbinetari buruzko ebidentziarik be ez da ezetuten. Gainera, zer da fruta gozoa? azukera kantidade altuak dituanak edo-eta sabore gozoa eskaintzen deuskuen frutak? Adibidez sandia, fruta gozo moduan sailkatzen da, izan be, 100 gramoko 4,5 gramo azukera daukalako; sagar berdeak barriz, 14-18 gramo azukera 100 gramoko. Beraz fruta pieza bat baino gehiago nahasteak ez daukala ezelango eraginik adierazoten deusku honek.

"Azukera baltza zuria baino hobea da". Azukerearen inguruan elikagaiakaz daukien loturen arabera 3 azukera mota desbardinu leikegu.

• Azukera intrinsekoa: elikagaien propioa dan azukerea; azukera hau zuntzari atxikita egoten da

• Azukera eraldatuak: elikagaiaren berezko azukerea da, baina eraldaketa bat jaso dauana (zuntza kendu). Adibidez: zukuak.

• Azukera estrinsekoa, erantsi edota libre: elikagaiaren parte ez dan hori; hau da, industriak edota norberak era boluntario baten gehitutako azukerak. Zuntzagaz ezelango loturarik ez daukien azukerak, beraz, azukera libreak. Adibidez: kafeari gehitzen deusazuna, postrearen baten ipintzen doguna, urun finduetan aurkitzen dana...

Eta hor dago koxka, azukera zuria, azukera baltzarana, siropea... danak azukera libreen taldean kategorizetan diran azukerak dira. Ez dira zuntzari atxikita aurkitzen, beraz euren absorzino, digestino eta metabolizazioa modu azkar baten gertatzen da gure organismoan; hau kaltetuz.

Puntu honetan danok galdetuko deusazue zeuen buruari, orduan zer erabili elikagaiak gozotzeko? Datilak, fruta (platanoa), pasak, kanelea, bainilea... alternatiba osasuntsu interesgarriak izan daitekez.

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza  
Askitasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoak  
Lentilen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Salino Arana 3, 48140 ICORPE (Bizkaia)  
☎ 94 657 70 03 - [olaetxeoptika@hotmail.es](mailto:olaetxeoptika@hotmail.es)

**Kili-Kili**  
Amo eta Puzatutako  
Lehendakoa Agite 10 - ICORPE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39  
Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24  
Arkaitz 677 46 40 91  
Galdar 666 58 20 06  
Puzutu polygonas, 10 LEMOA • [beeredariak@gmail.com](mailto:beeredariak@gmail.com)

## LUMATUTEN



## PEIO MURGOITIO

## Postureoa ala postu-eroa

Lagunakaz afaria, kontzertua ikustera, mendira urtekerea (ez edozein menditara), egun pasa kostara, astegiaren pasa inguruetara... Argazki bat, argazki bi, hiru argazki. Jarri holan, ez holan, begiratu ona, hara. Filtro bat, bi, hiru edo hamaika filtro. Oin bideo bat. Etorri honantza baina ez begiratu, barre egin eta oin salto. Musikea ipiniko deusat, edo agian ez. Tira bai, hobeto geratuko da. Zein abesti dago modan oin? Hauxe, ezetuten dozu? Ez, baina bardin da, ederto geratuko da. Zer idatziko dot? Holan ondo dago? Esan esaldiren bat. Ikurrik bai? Letrakaz nahikoa da, ez da ezer gehiago sartzean. Ea zein *hashtag* dagoan sutan, begira hau ingelesez, bai, sakonagoa da. Konpartidu. Klik.

Segundo bat, "atsegin dut" bat. Segundo bi, "atsegin dut" bi. Hamar minutu, berrehun

eta berrogei "atsegin dut". Nok emon deus? Nor da hau? Ez dakit nor dan, alkar jarraitzen dogu, baina ez dot ezetuten. Lagun honek ikusi dau baina ez deus emon. Haserre egongo da? Jeloskor? Berak zeozer igon ezkeron nik be ez deus emongo.

Argitalpen honetatik hiru egun pasau dira eta ez da inor igo dozunagaz gogoratzen. Bitartean zuk ikusitako beste ehundaka argitalpenak be aspaldi ahaztu dozuz. Barriz be barikua, barriz be astegiarena. Mobikorra boltsikotik atera eta tiro, jarri zara barriz martxan.

Istoriak begiratzan hasi eta argitalpen guztiak zurearen modukoak dirala ohartu zara. Bardinak. Berezi egingo eutsun argitalpen horrek besteen parekoa egin zaitu. Bat gehiago.

Ez dot zure argazkirik ikusi, astegiaren etxean geratu zara ala? Galdetzen dabe batzuek. Hau da, argi dago, ez badozu erakusten ez dozu egiten. Egiten dogun guztia erakustean aroan bizi gara, eta erakusten ez dauanak badirudi ez dauala ezer egiten. Erakusteak berezi egiten zaitu, beste guztien modukoa. Akaso urte batzuk barru ezer ez erakustea izango da modea, ez dau inork ezer argitaratuko eta zerbaist argitaratzen dauanak beste ezer egiten ez daualako izango da. Agian bai edo agian ez, batek daki.


Eta postureoaren gainean idaztea, zer ete da, postureoa ala postu-eroa?

## ZERTZEAN



## MARTIN ORTEGA MURO

## L jostariak



## BEGI TXINDORRA

Akauriko torrearen aurretik pasakeran gazteluaren eta laranjondoaren parabola akordura ekarten ahalegindu naz. Atoan konturatu naz halangorik ez dagoala, neuk dakidala behintzat. Beraz, taoismoaren mugetara hurbilduta -okasioak holan agindu dau- parabola horreetako bat asmatzen hasi naz, eta neure buruari prentzatu deutsat: hau zer da? Laranjondoa daukan gaztelua da? Ala gaztelua daukan laranjondoa? Erantzunik jaso ez dodan lez -zer espero zenduen ba- parabola baztertu dot gogoetatxo biri bide emoteko. Orduan, derrepentean, burutik pasa jat Akauri sano izen polita dala hemengo umetxo bateri ipinteko, indartsua, Japoniako samurai yakuzak be izentatzeko modukoa.

Bai, lehen kontu horreek samurak jakuzan (iragana? ala andrazkoen hitanoa?) gazteluak eta torre zaharrak esan gura dot. Bada, ondarea hondatuta ikusita pentsau be egin dot hemetik gitxira udalen webguneetako orrialdeetatik ondare kontu horreek guztiak atoan desagertuko dirala.

**Alvaro Rabelli**



**Gorosti**  
LORAZAINTZA  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa**  
hagin klinika  
Marina Uriagaitia Aldekoa  
Odonatologia  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zurbela 101  
R.F.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA • SINTASOLA • PAPERAK  
Elizkole, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRIE (Bizkaia)  
Tel. 94 621 64 62 - 608 664 018

Lehenbiziko Agiri II  
**Erroitz**  
Agiriaren gaurtik aurrera.

## Euskararen Eguna ospatzeko kultura ekintza ugari

Abenduaren 3a Euskerearen Nazinoarteko Eguna da, aurten gainera, Euskaraldiaren bigarren edizioari emoten deutsu amaiera eta hainbat ekitaldi antolatu dira eguna ospatuteko.



### Erredakzioa

Aforo eta distantzia neurriakaz, eta konfinamantu perimetralak dirala-eta, ez da aurreko urteetako modukoa izango seguruenik, baina aldarrikapenari eutsiko jako balikoietako bandera eta pankartakaz, eta herri bakoitzean antolatutako kultura ekintzakaz.

Euskaraldia lehenengoz egin zanetik, sano lotuta egon da Eus-

kerearen Eguna urte birik behin egiten dan ariketa sozial masibo honegaz. Izan be, hasikeratik, egun horretan amaituteko antolatu zan Euskaraldia eta igaz, urte birik behinekoa izanda egin ez zan arren, aurtengo Euskaraldiari begira ospatu zan Euskerearen Eguna. Izan be, biak helburu bera konpartiduten dabe: jentek euskeraz, "gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin" egitea,

hain zuzen be.

### "Kultura zaparrada"

Aurten eguna da abenduaren 3a. Arantzazun "Euskeraz bizi gure dogu" dinoan murala margoztuko dabe. Horretarako, 17:30ean batuko dira frontoian eta amaitutakoan, 18:30ak inguruan, txokolatea bananduko da partaideen artean.

Areatzan, abenduaren 2an,

19:00etan, Udaletxeko Areto Nagusian, Mirari Martiarena eta Idoia Torregeraik *Bakean dagoena bakean utzi* berbaldia taularatuko dabe. Euskaraldiaren argazki herrikoiaz, emongo deutsie amaiera, egitarauari abenduaren 3an 18:00etan. Egitarau honek, aurreko egunetan, kontzertua eta Laburbirako euskerazko film laburrak eskaini deutsez herrikoai eta muga egiten daben herrietako jenteari.

Artean magia ikuskizuna programau dabe. Saio bi eskainiko ditu Txoborro magoak; bata 17:00etan eta bestea 18:30ean hasita. *Gezur gehiegi* ordubeteko ikuskizunak komedia eta magia landuten ditu. Ikuskizunean, ikusleak hipnotizauko ditu, ikusle batek dirua galduko dau eta pizti arriskutsuen itzalak agertuko dira. Baina badaiteke dana guzurra izatea, guzur larregi.

Igorren, txistulariak ibiliko dira herrian 17:00etan eta ordu erdi beranduago kultura ekintzak hasiko dira Lasarte Aretan, "Kultura zaparrada". Edade guztietako jen-

teak euskal idazleen ipuin laburrak eta testuak irakurriko ditue eta bertsolariak be egongo dira euskereagaz gozatuteko, beste ekintza batzuen artean.

Lemoan, kontzertua emongo dau Mikel Inunziagak, Inunek, abenduaren 4an, Euskaraldiaren programazioari amaiera emoteko. Beragaz, Sergio Mayoral eta Bihotz Gorospe egongo dira 19:00etan, Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Zeanurin Euskaraldiaren itxiera ekitaldia egingo da. Antolatzaileek ekitaldian umoreari emon gura deutsie leku nagusia, barrea ez daitela faltau euskerearen jaian.

### Aukeran jantza konpainiaren Maurizia naiz ikuskizuna Diman

Diman, Euskerearen Egunaren inguruko ekitaldia egingo dabe 18:30ean frontoian. Bertan, mezua irakurri, eta ondoren, Aukeran Dantza Konpainiak, *Maurizia naiz* ikuskizuna eskainiko dau. Ikuskizunak, Maurizia Aldeiturriaga Zerberioiko pandero jotzaile ezaguna eta musika herrikoian erreferente dana ekarten dau gogora. Ikuskizunak, Mauriziaren bitartez andra askoren bizipoza, harrotasuna eta indarra adierazoten dauz.

Edu Muruamendiaraz da zuzendaria eta Karnele Jaio idazlearen testuak ditu ikuskizunak.

## Goranzko joerea eten egin da 2021eko aurrekontuetan

Zemendiaren 19an, aho batez onartu ziran 2021eko aurrekontuak Ubiden. Guztira 284.252,92 euroko aurrekontua da, 2020koa baino %8 txikiagoa.

### Erredakzioa

Izan be, Ubideko Udalaren diru sarrerarik handiena Udalkutxatik dator eta hor beherakadea egongo da.

Honek joera aldaketea suposatu dau. Atzenengo urteetan joerea goranzkoa izan da eta 2021ekoa beheranzkoa. Hori dala eta, gitxiago gastetea aurreikusit dabe Ubiden. "COVID-19ak daukan eragin bakarra oin diru sarrera gitxiago daukagula da eta partida batzuetan diru gitxiago gastetea aurreikusit dogu" azaldu deutsu BEGITURI Iñaki Beobide Ubideko alkateak.

### Jarduerak mantentzen eta azpiegitura handitu

2021erako aurrekontu txikiagoa izan arren, jarduera sozio kultu-

ralen partidaren diru kopurua mantentzea ebatzi dau Ubidek, eta azpiegituren partidea handitu. Azpiegitura proiektuen artean, asfaltuta dagozan bideak konpondu, iturri barri bat ipini eta parking bat egitea dagoz.

Oin arteko diru sarreraren beherako joerea gitxitu gura dau Udalak beste baliabide batzukaz. "Ikusita datorren urteko aurrekontua txikiagoa dala eta hurren-

go urteetakoak ez dakigula zelangoak izango diran eta egoera ikusita, baleiteke beheranzkoa izatea joerea, baso bat botatea ebatzi dogu. Honek, 60.000 euro inguruko diru sarrerea suposatu dau Udalarentzat, eta honengaz, espero dogu beheranzko joera honek lar ez eragitea" dino alkateak. Aurten esleitu eta datorren urteko maiatzean botako litzateke basoa.



## Sahararen aldeko elkarretaratzeak Igorren eta Zeanurin



### Igorreko konzentrazioa.

### Erredakzioa

Euskadi Sahara Mobimentuak deituta elkarretaratzeak egin ziran zemendiaren 20an EAEko 30 herritan; tartean, Igorren eta Zeanurin, Sahara herrialdearen askatasuna aldarrikatzeko eta erreferenduma eskatzeko. Igorren 200 lagun inguru batu ziran; Zeanurin, 20.

Zemendiaren 14an, Frente Polisarioak gerra-deklarazioa egin

eban Marokok 1991n sinatutako su-etena apurtu egin ebala eretxita. Izan be, bezperan Rabat eta Mauritaniaren mugan dagoan Guerguerat eskualde desmilitarizaurra militarrek bialdu ebazan Marokok sahararren protesta bat desegiteko.

Espainiaren erantzukizuna eta Nazino Batuen itxieria be salatu eben bertaratutakoak, eta 29 urtez atzeratu dan erreferenduma egitea eskatu eben.

## ARRATIA

## Bakearen etxea, etxebakoentzako harrera etxerako, izango da Caritasek tranbia solidarioan batutako dirua

Tranbia solidarioaren ekimenagaz Caritasek 9.162 euro batu dauz aurtan.



### Erredakzioa

Diru hori, Areatzan dagoan sakramentinoen etxean Harribide Fundazioak etxebako gazteak aukerak emoteko daukan proiekturako izango dala jakinarazau dau Arratiako eleizeak.

Hasieran, gazte bi jarriko dira bertan biziten, Arratiako persona batek batera eta Harribide Fundazioak hezitzaile batek gainbegiratuta. "Helburua da gazteak ikasketetan aurrera egitea, lanpostu bat topatzea eta gure gizartearen parte izatea. Arratiako bizitzan integretea gura dogu. Behin etxetik ater-

ta, beste gazte batzuk bizi ahal izango dira bertan. Bizikidetzeta eta herriagazko hartu-emonak jagon gura doguz, aurrerekiak gaituzte" dinoe eleizatit.

### Sakramentinoen etxea

Arratian urte asko egondako sakramentinoena da etxea. Arratiatik joan aurretik, baeukan "Bakearen etxea" izena eta Harribide Fundazioak mantentzen gura izan dau.

Proiektuak, Areatzako Udalaren, Arratiako Udalen Mankomunitatearen eta Arratiako abadeen babesadauka.

## AREATZA

## 2021eko aurrekontuetan herritarren proposamenak jasoteko inkesta bat abiatuko dau Udalak

### Erredakzioa

Inkesta beteteko epea abenduaren 4tik 15era izango da. Etxeetan buzoneauko da, baina Google Forms-etik be eskuratu daiteke. Inkestak batutako buzoi bi ipiniko ditu Udalak, bata udaletxeko arkupean eta bestea Añibarro parkean. Ondoren, hilaren 22an, batzarra egongo da udaletxean, 19:00etan, aurrekontu proposamena aurkeztuteko. "Udalak, inkestaren emaitzen arabera, herritarren ardatzetako baten inbersinoa handitzeko eskatu ezke- ro, hori beteteko konpromisoa

hartuko dau" adierazo deustso BEGITUri Asier Garcia alkateak.

Inkestak sei atal ditu: Irigarritasuna eta oinezko gunea; Eraikinak; Eraginkortasun energetikoa eta ingurumena; Elkarbizitza eta politika sozialak; Turismoa eta garapen ekonomikoa eta Zeharkako ardatzak: euskera, parte-hartzea eta bardintasuna.

### Egindako inbersinoen panelak

2015etik egindako proiektu eta inbersino nagusien barri emoten dabene bost panel ipiniko ditu Udalak, Añibarro parkean, eskolan, plazan, udaletxean eta Kristo kalean.



## IGORRE

## Euskal Esnea etiketeagaz egindako merkaturatutako lehenengo ahuntz gaztaia Igorren egiten da

### Erredakzioa

Loiate auzunean dagoan Askibil etaldean, 1999tik daroe euren ahuntzetatik jasotako esneagaz gaztaia egiten, eta "Euskal Esnearekin egina" etiketea erabili ahal dauan lehenengo ahuntz gaztaia da hangoa. Oin dala urte bi, etiketea lortzeako beharri ekin eutsien Loiatekoak.

Ahuntz gaztaia Euskal Herrian desagertzen joan da atzen hamarkadetan. Desagertuta egozan hainbat gaztairen errezetak berreskuratzeko, Eusko Jaurlaritzako Hazik, Gaztaberri proiektua ipini eban martxan. Errekuperatutako gaztai horreen ekoizleak Euskal Esnean erregistratu behar dira. Askibilekoak, Txuria Gazta, Auntzai Ondua eta Auntzai Leuna tipologiako gaztaia egiten dabez, eta gaztai horreek Euskal Esnea Baserrikoa aitamenagaz identifiketan dira. Auntzai Leuna, koagulazino laktikoko gaztaia da, ahuntz-rulo



frantsesen estilokoa eta Auntzai Ondua esne gordinagaz egindako gaztai prensadu tradizionala da. "Errezeta berreskuratu eta egokitu dogu, aldaketa txiki batzuk egin doguz, lehenengo hobetuteko. Gainera peniciliumez estalitako pasta biguneko gaztaia egiten jarraituten

dogu. Hori dana, gure ahuntzen esneagaz, besterik ez" azaldu deustso BEGITUri Askibilekoak.

Gaztaiok Arratian antolatuten diran hainbat azokatan, Igorreko Rekalde harategian, Zeanuriko Loli-Leire dendan eta online be saltzean ditue.

## IGORRE

## Ertzaintzaren jarkera oldarkorra salatu dabe Kiñu Gaztetxeoak

### Erredakzioa

Kiñu Gaztetxea kudeatzen dauan asanbladeak emondako komunikadu baten arabera, zementuaren 14an, VII. Rockupa ospatuteko Uger taldearen kontzertuaren ostean, 21:30ean, etxeratze-egin- durako ordu erdi falta zanean Ertzaintza agertu zan Gaztetxean. "Ertzaintzaren jarkera oldarkorra dala eta, Gaztetxea berehala hustu genduan" dinoe asanbladakoak. Ekimena segurtasun neurri guztiakaz egin zanez, Ertzaintzak kontzertuak egitea posible zala ziurtatu ondoren, gazte bat atxilo-

tu eban "notifikatu bako arazo bat" dala-eta. Gaua inkomunikatu eta epaitegitik pasau ostean, askatu egin ebela gaztea, jakinarazau dabe asanbladakoak.

### Kulturgintzan jarraituteko asmoa

Honen aurrean, asanbladeak, kultura segurua dala eta kulturgintzan jarraituteko dauala adierazau dau; osasun neurri guztiak beteta, kultura eta aisialdia bultzatzen. Atxilotutako lagunari be alkatasuna adierazau deustso eta Ertzaintzaren jarkereak "persekuzino bat erakusten" dauala dinoe.



ARTEA

# Arratia erreko Biteriko zubiaren inguruko tarte baten, erreko landaredia landatu dabe

Uraren Euskal Agentziak (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitakoa) Arratia errekearen ertzeko 52 metro leheneratu ditu Arteko Biteriko zubitik errekan gora metro gitxira.



Erredakzioa

Material naturalak erabili dira esku-hartze honetan.

Ibilguak 3,5 eta 4,5 metro arteko sakonera eta 16 metro inguruko zabalera ditu tarte horretan, eta ertz bietan ia bertikalak diran ezpondak eukazan. Erreka ertzaren egoera txarra konpontzeko, enborrak eta buztin lurak erabili dira. Jutezko manta batez estali da ezponda barria, eta erreka ondoko zugatz espezie autoktonoak landatu dira, aldaxkak erabiliz.

Oin, lanok zati hori landatzen eta landareztatzen jarraitzen dabe. Aldaxkak egiteko landare-materiala ingurutik jaso dira:

saratsak (*Salix atrocinerea*, *Salix eleagnos* eta *Salix alba*) eta zuhandorra (*Cornus sanguinea*). Aldaxkatik aurrera eta ezpondaren gailurreraino, haltzak (*Alnus glutinosa*), leizarrak (*Fraxinus excelsior*), hurretxak (*Corylus avellana*) eta elorri zuria (*Crataegus monogyna*) landatu dira.

Landaredi honek aukerea emoten dau ornobakoentzako eta arraintzako mikrohabitat egokiak sortzeako, eta ugaztunen eta hegaztien joan-etorriak errazteko edo uren kalitatea hobetuteko.

Proiektuak Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF-FEDER) finantziatzea jasoten dau.

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**

*Bilaka deya jartze*      *Bilaka deya proiektu*

- Salmenlan zein aldatu
- Lurak (zerbitzu, landat, basak...)
- Etebiziak (jauk, baserri, etxak...)
- Garaiek
- Lan komertzialak
- Publikoak...
- Baloratzeak

Irakin berak erabiltzeko instalazioak  
Arkitekto-proiektuak

- Sare diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Irteerak ahoakularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

**arratia**  
INMOBILIARIA

Lanaberrak: Agre 23, Lantza - Agre  
Bilaka 14, 01 01 04 - 05 04 01 01  
Bilaka 17, 01 01 04 - 05 04 01 01  
Bilaka 18, 01 01 04 - 05 04 01 01  
Bilaka 19, 01 01 04 - 05 04 01 01  
Bilaka 20, 01 01 04 - 05 04 01 01

**belagorri**

mediku naturista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zelakoentzat elkagaiak  
estebizena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

IGORRE

# Costumeroren alabearentzako prisazko kautela-neurriak ebaztekoa da epailea

Epaiketa penalerako datarik ez dagoan arren, Irune Costumeroren alabearentzako prisazko kautela-neurriak ebazteko dauan epaiketa zibilak badauka fetxea: abenduak 3.

Erredakzioa

Hiru urte dira Irune Costumero Igoerrekoari alabea kendu eutsiela, eta agindu hori emon ebenen BFAko Haur Zerbitzuko karguak eta langile bat epaiketearen zain dagoz Probintzia Auzitegiak delitu zantzuak ikusi ebazalako esku-hartze horretan. Umea ez dago amagaz harrezkero eta min psikikoa daukala forgatzen dabezan txostenak dagoz.

Epaiketa penala atzeratzen zala ikusita, prisazko kautela-neurriak eskatu eta 2019ko urri lehenengoan onartu ebazan epaileak. Orokorrean prisazko neurriak hila-bete edo hile biren buruan ebazten badira be, kasu honetan urtebete eta hiru hilabete luzatu da kontua. Izan be, aurretik hirutan euki dau epaiketa fetxea jarrita baina BFAk aurreko egunetan "txostenak sartu, indefensinoa sortu eta bertan behera" geratzen dala epaiketea salatu dau Costumerok.

Kautela-neurriak ebazteko epaiketea, epaiketa penalagaz

lotuta dago; izan be, ustezko delituak umeari egindako kaltea etetea daukie helburu. "Posiblea da zainketa partekatuta bueltetea, azken finean sententzia irmo bat dago epaile batek emonda; posiblea da be bai, niretzat bakarrik izatea, umea txarto dagoala frogatzen dabezan txostenak dagozalako edo posiblea da epaileak ezer ez egitea, ez dot uste, baina posiblea da" dino Costumerok.

Epaiketa penala data barik

Ahozko epaiketearen hasikerea,



agintzen eban Bilboko 9 zenbakiko Instrukzio Epaitegiak emondako autoak, Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte zerbitzuetako lau funtzionariok ustez egindako irregulartasunak jasoten ditu. Izan be, beste gauza batzuen artean, umearen gurasoak custodia partekatuta eukien 2015eko sententzia irmo batek holan ezarrita, eta amari umea kentzearen administrazioaren egintza horrek, sententzia irmo horren kontra doa.

Sergio Murillo Corzo, orduan Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendari Nagusia Gizarte Ekintza Sailean eta oin Gizarte Ekintzako Diputadua; Maika Urutxurtu Cueva, gizarte langilea; Antonia Giner Cucarella Harrera, Balorazio eta Orientazio atalburua eta Consuelo Alonso Bergara Haurren Zerbitzuetako burua dira inputauta dagozanak.

Nazino Batuetako andren kontrako indarkeriaren errelatoreak, kasu honengaitik eta GAS faltsuaren egiten dan erabilereagaitik kezka adierazo eta azalpenak eskatu deutzaz Espainiari.

DIMA

# Dimako Udalak Oinherri egitasmoagaz hitzarmena sinatu dau

Urteak diran arren, Dimako herria, Dimesten izenagaz, eta Oinherri Herri Hezitzailea egitasmoa alkarlanean dabizala, zemendiaren 19an hitzarmena sinatu eben, alkarlan hori indartuteko asmoagaz.

Erredakzioa

Holan Udalak egitasmoaren oinarriak kontuan hartzeako konpromisoa hartzean dau eta Oinherri aholkularitza eta formakuntza emotekoa.

Haurtzaroaren kultura, benetako parte hartzea, aisialdi hezitzailea, euskera, aniztasuna, ingurumen natural eta kulturalagazko errespetua eta komunitateko sarea eta auzolana sustatzea dira egitasmoaren oinarriak. "Gure herri eta urietako egunerokoan sarri ahaztuten doguz umeak, nerabeak eta gizarteko zaugarrienak. Gure agenda eta egitasmoen erdigunean ipini gura doguz, guztiontzako ona izango dan herri bat eregiteko" dino Dimesten-etik.



Horretarako, formakuntza saioa euki eben hitzarmena sinatu eta hurrengo astegienean.

Herri Hezitzaile sarea

Dima, holan Euskal Herrian gero eta gehiago hedatzen doan herri hezitzaileen sarera batu da. Arra-

tian, momentuz, bera da bakarra. Altzo, Asteasu, Azpeitia, Baztan, Bergara, Durango, Errenteria, Hernani, Idiazabal, Itsasondo, Larabetzu, Mutriku, Oñati, Ordizia, Orio, Segura, Usurbil, Zaldibia, Zestoia eta Zumaia dira Herri Hezitzaileen sarean dagozan beste herriak.

## IGORRE

## Gea Kelvioneko langileak burrukan lanpostuen alde

Kelvion Thermal Solutions enpresako beharginak greba mugabakoan dagoz zemendiaren 15etik eta 27an manifestazinoa egin eben Igorren euren lanpostuen defentsan.

### Erredakzioa

Bertan 500 lagun inguru batu ziran; tartean, egoera txarrean dagozan beste lantegietako beharginak eta ostalaritza eta zerbitzuetakoak. Eskualdeko enpleguak mantentzea eskatu eben bildutakoak.

Zemendiaren 5ean, enpre-

sako zuzendaritzek Igorreko lantegiaren itxiera eta bertan lan egiten daberen 73 beharginen kaleratzeen barri emon eutsan enpresa batzordeari. Enpresa batzordearen arabera, ebatzi honen ez dauka zerikusirik egoera ekonomikoagaz, deslokalizazio hutsa baino ez da. "Igorreko lantegiak merkadu fondoa, ekoizpen

ahalmena, merkadu prezioak, bezero indartsuak eta behargin onak ditu", "erabateko deslokalizazioa da. Gure lantegia ixteko errazoi ekonomikorik ez dagoala baieztatzen dogu" azaldu eban enpresa batzordeak.

### Erakundeen babes eske

Enpresa Batzordeak Eusko Jaur-laritzako Industria Sailagaz egin ditu bilerak, Kelvion zarratzea saihesteko eskatzeko, eta Arratiako hainbat udaletan bezi-noak sartu ditue udalon babes eskatutako. "Badakigu Kelvion Gea zarratzea golpe latza dala Arratiarentzat. Enpresak hartutako ebatziak dirala eta, eskualde hau oso zigortua izaten ari da, Arratia basamortutzen dago". Araluce eta Tecnichapako beharginen solidaritatea be jaso eben.

Oingo momentuan eskual-



dean, industriak egoera "gogor eta jasanezina" sufriduten dauan bakarra ez dana jakitun, Kelvioneko enpresa batzordeak alkarta-

suna adierazo eutsen ostalaritza-ri, osasun eta zaintza zerbitzui, saltoki txiki eta lehen sektoreko beharginai.



## Hezkuntza komunitadeari

### Igorreko guraso talde bat

Ez besarkatu! Ez zaitetz hurbildu gero! Mosurik ez! Maskara hori gora, mesedez! Garbitu dozuz eskuak? Ez partekatu, ados? Eutsi txizari!! Ez pasau marrea, faborez... Hona egunero gure umeai behin eta barriz errepikatzen deusegun matraka astuna. Danok gagoz arduratuta koronabirusagaz, eta kezka hori, eta zenbaitetan baita bildurra be, gure txikiak transmitiduten deusegu. Ez gara gu pandemia honeri larritasuna kentzean hasiko, baina esan beharra dago ez dauala danak balio, oindino gitxiago umeen ondoizateaz gabizanean. Izan be, nork defendiduko ditu umeak eskubide murriketa honen aurrean? Ez dira erakunde publikoak umeen ondoizatea bermatzearen arduradunak? Ba ez... argi dago ezetz. Gurasooi jagoku euren eskubideen eta interesen alde egitea. Mobidu gaitzean, ba! Egin daigun zeozer!

Izan be, muga zorrotzen panorama honetan, posible da kalidatezko hezkuntza emotea, osasun erispideen kontra joan barik be. Badagoz horren adibide diran eskolak. Esaterako, zenbaitetan kontaktu bako gorputz heziketako saioak moldatu ditue umeak maskara barik ibilteko. Beste batzuetan, aire zabalean egotea lehenetsi dabe, patioa hezigune bihurtuta. Irakasle askok polizia lana egiteari muzin egin deusie, ez dalako euren egitekoa.

Eta, bai, umeak pozik dagoz debekuak debeku. Lagunakaz dagoz oin, mosuko eta distantziagaz bada be. Hiru hilabete etxean giltzapetuta egon ostean, nor keju? Baina ez daiguzan gauzak nahastu. Lehen baino hobeto egoteak ez dau esan gura ondo dagozanik. Ziurrena sumatuko dabe egiten gabizana ez dala guztiz ona. Euren bizitza laburrean mendeak dirudien hilabeteak lapurtzen gabiz: amesteko, ikututeko, maitatzeko, esperimentetako, olgetako... biziteko, azken finean.

Presinoa arindu beharra daukagu, eltzak eztanda egin ez dagian. Koronabirus sasoiko ume horreek etorkizuneko heldu gaixoak izan ez daitezkan.

**Euskera eguna**  
ABENDUAK 3

17:00etan TXISTULARIAK HERRIAN ZEHAR  
17:30ean KULTURA ZAPARRADA  
KULTUR ETXEAN, LASARTE ARETOAN

Erdutuz ikusten kulturaz bustiten!

IGORRE  
Danon herria  
Danon euskera

Euskeraren Erakundeak



# Eskerrik asko Lemoa, herria ahobizi eta belarriprestakaz bete dogu!

Hemendik aurrera be euskerea gehiago, gehiagogaz eta gehiagotan egiteko Udalak aukerak eskaintzen jarraituko dau.




Info+: euskara@lemoa.net / www.lemoa.net

## EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



Publizitatea:  
649 979 115




94 631 73 14  
eta  
649 979 112



Beinat Anzola Uriarte  
ARKITEKTOA

637418925  
beinatanzola@ehaeo.org

Lehendakari Agirre 14, behea  
IGORRE



- Eraikuntza berrien proiektuak
- Eraberritze proiektuak
- Eraikinen azterketa teknikoak
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak

INDIBITI  
ARKITEKTURA ESTUDIOA

- Jarduera lizentziak -
- Administrazioarekin tramitazioak -
- Diseinu lanak -
- Asesoramendu lanak -

## ANDREN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA. ZEMENDIAK 25

# La seirehun persona batu ziran guztira herrietan indarkeria matxistearen kontra

Aurten ez da manifestazio jentetsurik egon uriburuetan zemendiaren 25ean, konfinamentu perimetralak galarazo egin ditualako, baina jentea ez da faltau herrietako konzentrazioetan. Arratia, Ubide eta Zeberion guztira 600 persona inguru batu ziran andrak jasaten daben indarkeria matxistearen kontra aldarria egiteko.



Arantzazu.



Artea.



Bedia.



Areatza.

## Erredakzioa

COVIDaren pandemiari aurre egiteko gobernuak hartu dabean neurriak, genero ikuspegi barik hartu dirala eta andrentzako kaltegarriak izan dirala salatu eban. Konfinamentuan andra asko euren erasotzaileguz egon behar izan dira, isolatuta eta urten ezinik, holango egoeretako andren bizirauteko estrategiak oztopatuz. Neurriok "errazakeria, prekariedadea, eta herri burujabetzaren galerak biderkatu besterik ez dabez egin". Gainera, honeek ekarritako krisialdiak, eragin zuzena izan daukala eremu

feminizaduetan, batez be egoera irregularrean dagozan andra beharginengan salatu eban Arratiako mobimentu feministeak elkarretaratzetan irakurri zan adierazpenean.

Inor bazterrean itxi barik, jente guztiaren bizitza duina eta askea izan daiten, zerbitzu publikoak giltza diralakoan, zebitzu publikoak indartzea be eskatu eban. "Justizian eta bardintasunean oinarrituko diran zerbitzu publikoak. Ezin dogu-eta onartu indarkeria edota bortxaketa salatu eta poliziak zein epaileak gure berbea zalantzan ipinterik. Ume eta gaztetxo on-gizatea bermatzeko sortu diran

Zerbitzu Sozialak amari bere seme-alaben kustumia kentzeraino heltzean diralako Guraso Alienazio Sindromea leporatuta, Osasunaren Munduko Erakundeak berak arbuatutakoa dan arren".

## Antolatu urtenbideak emoteko

Erakundeai zerbitzu publiko justuak eskatzeaz gainera, indarkeria matxisteaguz amaituteko antolatu beharra be adierazo eban. "Androk ahaldundu eta alkar babes-tuteko hautua egin behar dogu; komunitate feministea josi, sareak antolatu eta matxismoaren aurrean urtenbideak emon".

Indarkeria matxistearen adierazpen bortitzena, eraildako andrak dira. Berria Egunkariaren biktimen mapak, 2003tik hona, Euskal Herrian indarkeria matxistak hildako 106 andra eta 11 ume jasoten ditu. Aurten lau. Martiaren 11n, ama-alaba batzuk hilda topau ebezan Abanton. Ertzaintzak hildakoen bikotekidea eta aita atxilotu eban hilketa egotzita. Martiaren 16an, Soraluzen 74 urteko andra bat hilda topau eban Ertzaintzak eta semea atxilotu eban hilketea leporatuta. Maiatzaren 6an Angelun, 89 urteko gizonetako batek 83 urteko andrea hil eta bere buruaz beste egin eban.

Honek eta munduan hildako guztiak ekarri ebezan gogora Arratiako elkarretaratzetan: "matxismoak, emakumeon kontrako indarkeriak erail dabean andra guztiengaitik, gugaitik, geure ama, ahizta, lagun eta inguruko andrengaitik jarraituko dogu burukan".



# Diman euskaraz bizi gara




Dimako Udala

## EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



Dima.



Lemoa.



Zeanuri.



Igorre.



Ubide.



Zeberio.

## Libre sentidu, libre pentsau, libre ekin jantzi zaitez gura dozunarekin!

Igorreko eskolako 6. mailako ikasleak, zemendiaren 20an, protesta egin genduan erropen estereotipoen kontra.



### Igorreko eskolako 6. mailako ikasleak

2020ko zemendiaren 20an, barikuan, 6. mailako ikasleak protestau egin genduan Inazio Zubizarreta eskolan. Hor egunean, libre jantzita urten ginan kalera gizarte aldatzeko gogoagaz. Gure helburua, eskolako zaharrenak izanda bertakoen pentsakerea aldatutea izan zan.

Idea hau Mikel izeneko Bilboko mutil bateri gertatutakoa jakin ondoren bururatu jakun. Urri bigarrenaren 27an, mutil hau goneagaz jantzita joan zan institutura. Bertan ikasleak burla egin eutsien eta irakasle batzuk be bere janzkerea gaitzetsi eben, eta psikologoarengana bialdu eben.

Tik-tok eta Instagram sare sozialak erabiliz, berari gertatutakoaren gaineko protestea argitara emon eban. Bideo honeek ikusi ostean, protesta honegaz bat egiteko ebatzia hartu genduan: zemendiaren 20an danok libre jantzita etorriko ginan eskolara.

Esan eta egin! Egun horretan egunero janzten doguna alde batean itxi, eta desbardin jantzita etorri ginan eskolara. Bakotxak gura izan eban moduan.

Jenteak nahiko arraro begiratuten ginduan, euren begiradan igartzten zan, eta kasu batzuetan, isekak be entzun behar izan genduzan.

Honegaitik guztiagaitik, bihotza atsekabez igarri genduan, eta begiak distiratsu jarri jakuzan.

Bizi dogun gizarte honetan, nahiz eta urteak pasau, jarkerak, pentsakerak... asko ez dirala aldatu ikusten dogu, eta etorkizuneko urteetarako askatasuna, bardintasuna, errespeta, estereotipo eza... aldarrikatzen dogu!

### Aske maite aske bizi!

Kaixo neska-mutilok entzun guri hara gauza bat argitzera gu etorri gara zuk nahi dozun moduan joan eskolara jantzi gura dozuna librea zeu zara!



## Umorezko ikuskizun bi

Aurtengo, Andren Kontrako Indarkeria Ezabatze Egunaren inguruko Arratiako andra taldeak eta talde feministak antolatutako kartel bateratua apalagoa izan dan arren, ez da hilegaz amaitu eta abenduaren hasikerarako umorezko ikuskizun bi dagoz programautu.



na bakean utzi ikuskizunean. Sei bakarrizketatan, euskalkiak, onomatopeiak, amatasuna, gorputzaren eta kristalezko sabaia- ren gainean egingo dabe berba umorea erabilia.

Meri, Mari eta Lari umeai zuzendutako ipuin eta kantuz osotutako antzezlan da. "Ipuinak sexu eta genero aniztasunaz egiten dabe berba, familia eredu desbardinez, bildurrak bazter- tzeaz eta, azken finean, askatasunaz". Ikuskizunak biltzean dituan abestiak Yogurinha Borovarenak dira. Galder Perezek idatzi dau goioia.

### Erredakzioa

Abenduaren 2an, 19:00etan, Areatzako Udaletxeko Areta Nagusian, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai *Bakean dagoena bakean utzi* berbaldia taularatu dabe eta hurrengo egunean, abenduak 3, 18:30ean, Marta Urcelayk eta Yogurinha Borovak, *Meri, Mari eta Lari* umeentzako antzezlan eskainiko dabe Be- diako frontoian.

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai euskerea eta generoa buztartzen ditue *Bakean dagoe-*





**begitu**

## Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizitatea diseinatzeko deitu.

Publizitate eskusiboa, zure enpresa IKUS arazoko dauana.  
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu  
(beste aldizkari batzuk, internet...).

### 1. AUKEREA

Diseinua +  
4 aldiz modulo 1 BEGITU

**95€\***

### 2. AUKEREA

Diseinua +  
4 modulo BEGITUko portadan

**135€\***

Publizitatea:  
**649 979 115**

\*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

Ipini produktu honeek mahaian; nik gauza bera egingo dot. Ez ahaztu Eguzkilorea be mahaian ipintea bere magia egin dagian; nik gauza bera egingo dot. Eta topa egiteko orduan, altxau zure kopea eta egizu ametsezko txin-txin bat nireagaz, ni gauza bera egiten egongo naz-eta. Suertau jakun egoeran distantzia ez daitela izan HURBIL sentidu gaitezaz oztopo.

### Zazpi Haizetara & Euskal Herriko produktuak

Aglirre Lehendakaria 11  
94 631 92 43 | zazpihaizetara.arratia@gmail.com



**Sano otzara berezia  
momentu berezi  
baterako!**

**55 €**

Distantzia ez daitela izan  
HURBIL sentitzeko oztopo!

Egizu HURBIL otzarearen  
enkargua hainbat arinen.



Publizitatea:  
649 979 115

**begitu**

94 631 73 14  
eta  
649 979 112

GURE HELBURUA  
EZ JAKELA EZER FALTA  
...ETA BATEZ ERE MAITASUNEZ, MAITASUN OSOZ

**JANDONIZ**

nagusientzako etxea  
residencia para mayores



EGONALDI IRAUNKORRAK ETA ALDI BATERAKOAK

Jandoniz, 2 · 48390 BEDIA · tel. 94 631 31 30  
www.residenciaparamayoresjandoniz.es

#### ARRETA OSOA:


- Lagunduta
- Dementziak
- Fisioterapia- errehabilitazioa
- Zainketa aringarriak
- Post-ebakuntza errekupezioa

#### TALDEA OSATZEN DU:

- Medikua
- Erizaintza
- Fisioterapeuta
- Psikologoa
- Lanbide-terapeuta
- Animatezaile soziokulturala

#### GAINERA DAUKAGU:

- Ile-apaindegia
- Podologia
- Masajista



# begitu

18 urte

arratia  
ubide  
zeberio

## BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

### 2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egiteagaitik **Garena** jatebixean lagun birentzako degustazio menua zozketatuko dogu abenduan.



\*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkartea** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_  
 Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€  15€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

bizkaiko kultur  
txartela

cecoxi

Egin zaitez Begitu-lagun 15 euroren truke **Bizkaia Aurrera Kultura Bonuagaz!**

## ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK

Deialdia egin dabe. Arratian 18 eta 35 urte bitarteko gazteek jardura ekonomiko barriak sortzeko eta marxan jarteko gastuak diruz laguntzeko.

### XEDEAK

Deialdiaren xedea da gazte ekintzaileei Arratiako bailaran jardura ekonomiko barriak sortzen laguntzea.

### NORI ZUZENDUTA DAGO?

**18 eta 35 urte bitarteko gazteak.**  
Entidade eskatzaileak Arratiako udalerriren beten alta emonda egon beharko dau jardura ekonomikoaren ganeke zergan.

### BALDINTZAK

Onuraduntzat hartuko dira, deialdi honetako C1 etalean ezarritako betekizunak beteteaz ganera, jardura ekonomiko barraren bat hasi badabe 2019ko irailaren 15etik 2020ko irailaren 14ra bitartean (biak barnean). Jardurearen hasiera eguntzat JEZen lehen aldiz alta emon dauen eguna hartuko da.

### ZENBATEKOA, GUZTIRA

7.000 €

### BALORETAKO ERISPIDEAK

Lagurtza ekonomikoak deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunen arabera emongo dira, eta erispide honeei jarraituz:

- Barritzailea izatea (10 puntu 100etik)
- Kalidadeko enplegua sortzeko gaitasuna (30 puntu 100etik)
- Eragin soziala (20 puntu 100etik)
- Ingurumen-jasangarritasuna (20 puntu 100etik)
- Ekonomia-jasangarritasuna (20 puntu 100etik)

### ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

2020ko abenduaren 11.

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZINOIA

Ikusi oinarriak eta formularioak Arratiako Udalen Mankomunitatearen webgunear: [www.arratia.eus](http://www.arratia.eus)

INFORMAZINO GEHIAGO ETA  
ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA

**ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA**  
 Elexalde, 49  
 48140 IGORRE (Bizkaia)  
 gazteria.arratia@bizkaia.org  
 Tel. **94 631 17 17**

## ARRATIAKO GAZTEEK ENPRESAK SORTZEKO DIRULAGUNTZAK



Arratia  
"Bikain Guptz"



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## PELOTEA

## Danel Elezkano Buruz Buruko Txapelketako finalerdietaraino heldu zan

### Erredakzioa

Ezin izan eban finalerdia irabazi. Finalerdia, zemendiaren 21ean jokatu eban Erik Jakaren kontra Bilboko Bizkaia pelotalekuan, 6-22 galduz.

Jaka hasikeratik nagusitu jakon, eta 5 eta 6 tantora bardindu

arren, gipuzkoarra 22 tantora heldu zan, Elezkanori aukerarik emon barik.

Finala zemendiaren 29an jokatu zan Jaka eta Altunaren artean eta Jakak lortu eban txapela.

### Aurreko partiduak

Finalerdiko partidua alde handia-

gaz galdu baeban be, aurrekoa, final-laurdenetakoa erraz irabazi eutsan Asier Agirrerri 22-9 zemendiaren 16an. Sano partidu ona egin eban eta oso denpora gitxian 19 eta Tekoa ipini eban markagailuan.



## FUTBOLA

## Liga hasikera txarra

### Erredakzioa

Nazional mailako ligea aurrera doa eta Arratia andrazkoen A taldeak partidu bi jokatu ditu zemendiko bigarren hamabostaldian, euretako bat atzeratutakoa.

Zemendiaren 21ean Oiartzunen kontra jokatu eban Arratiak eta 5-0 galdu eban Igorreko taldeak. Zemendiaren 29an ostera, atzeratuta eukan Añorgaren kontrako partidua jokatu eben

arratiarrak etxetik kanpo. Partidu horretan be bost gol jaso ebazan Arratiak.

Datorren partidua hilaren 5ean, zapatua, arrastiko 16:00etan jokatu dau Arratiak Igorreko Urbieta zelaian lidertzan dagoan eta partidurik galdu ez dauan Real Sociedad B taldearen kontra.

Arratia, beste taldeak baino partidu bat gitxiago jokatuta, azken-aurreko postuan dago sailkapenean puntu bakarragaz.

**begitu**  
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Arrebiako Herri Ikastetxeak

**Gure**  
ikastetxeak

Euskalduna  
kalidadezkoa  
herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre



## HALTEROFILIA

### Hiru urrezko domina lortu eta Espainiako markak apurtu dauz Bruno Sotok



Bruno Soto.

#### Erredakzioa

Cadizen jokatu zan zemendiaren 21ean, Espainiako Txapelketa sub-17. Lemoaztarrak, 89 kategorian, hiru urrezko dominak irabazteaz gainera, errekorra apurtu eban modalidade bakotxean. Arrankadan, 120 kilo altxau eba-

zan, denpora bitan 151 kilo, eta guztira 271 kilo.

Honegaz, amaiera ezin hobea emon deutso Bruno Sotok urteari. Izan be, urri bigarrenaren 17an, junior mailan be (20 urtera arte), hiru urreak lortu ebazan. Oin 2021eko Munduko Txapelketeari begira jarri da kirolari lemoaztarra.



## AZKOREA

### Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiko finala atzeratu da

#### Erredakzioa

Helburua finala publiko aurrean jokatzea da eta momentuz,

abenduaren 13ra atzeratu dabe. COVID-19 birusaren hedapena gelditu arazoteko agintariak hartutako neurriak ez dabe probin-



Azkolariak Garena jatetxearen (Dima) aurrean urrietan emondako prensaurrekoan.

## PELOTEA

### Arratiako ordezkari biak sailkatu dira binakako finalerdietarako

#### Erredakzioa

Emakume Master Cup-eko finalerdiak, abenduaren 6an jokatuko dira. Bertan, Dimako Amaia Alday eta Oihane Orbegozo, Olatz Arribabalaga eta Gentzane Aldairen kontra neurtuko dira finalerako pasea lortu guran. Txumuluxueta klubeko Ainhoa Ruiz de Infante be beste horrenbeste egiten saiatuko da Miriam Arrillagagaz

batera, Patri Espinar eta Naroa Agirrerren kontra. Finala Arrigoriagan jokatuko da abenduaren 20an.

Zemendiaren 8an jokatu eban finalaurdenak Legution. Ainhoa Ruiz de Infante eta Miriam Arrillagak 8-22 irabazi eutseen Leire Garai eta Gentzane Aldairi. Amaia Alday eta Oihane Orbegozo barriz, 22-20 nagusitu jakien Miren Larrarte eta Arrate Bergarari.


tzien eta autonomia erkidegoen arteko desplazamenturik ahalbidetzen eta txapelketaren antoluntzearen helburuetako bat zaleak eta ikusleak erakartea denez, zemendiaren 29an ez egitea ebatzi eban. Abenduaren 13an, 12:00etan, Bilbao Arenan da oin finaleko zitea. "Seguruenik 400 lagunentzako lekua egongo da".

Orduan ebatziko da Sherpa.ai Aizkolari Nagusiko sei azkolari finalisten artean nor izango dan txapelduna: Mikel Larrañaga, Iker Vicente, Eneko Otaño, Julen Alberdi, Jon Irazu edo Aitzol Atutxa dimoztarra. Gainera, beste zortzi azkolari lehiatuko dira lehen mailako promozinoa lortzeako.

Azkolari finalistak, lehen mailarako promozinorako lehian dabizanak eta publikoak, finalaz modu presentzian gozatu ahal izatea espero dabe antolatzaileak, baita Bilbora hurreratu gura daben beste herri eta probintzietako ikusleak bertara joan ahal izatea be.



Amaia Alday.



Ainhoa Ruiz de Infante.



ARTEAKO UDALA EUSKARALDIAREKIN

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Gugaz harremanetan ipinteko

94 631 73 14  
eta  
649 979 112

begitu

Publizitatea:  
649 979 115

begitu@topagunea.com

www.begitu.org

## ZINEKLUBA

## Igorreko Zineklubak andra aparta baten istorioa proiektuauko dau

## Erredakzioa

Abenduaren 10ean, 19:00etan, zineklubak *Una mujer fantástica* filma eroango dau Igorreko Lasarte Aretora. Sebastián Lelio txiletar zinema zuzendariak idatzi eta zuzendu eban 2017an film hau. 2018ko Oscar Sarietan ingelesa ez dan hizkuntza baten egindako film onenaren Oscarra irabazi eban.

## Sinopsia

Marina eta Orlando alkarregaz maiteminduta dagoz etorkizunari begira planak egiten. Marina abeslaria izan gura dauan zerbitzari gaztea da. Orlandok Marinak baino 20 urte gehiago ditu. Iluntze baten, Marinaren urtebetetzea ospatu ondoren, Orlando ondoezik ipinten da. Ospitaleratu eta gitxira Orlando hil egiten da. Orduan, Orlandoren senideak Marina susmagarri bihurtzen dabe. Marina andra transgeneroa da eta Orlandoren



familiako kide askorentzat hau aberrazioa da.

## Urtailean Hego Koreako film bat

Zineklubak programautako hurrengo filma, urtailaren 7an egongo da ikusgai. Hego Koreako Park Chan-wook-en *La doncella* 2016ko pelikulea izango da.

## ANTZERKIA

## Ikimilikiliklik antzezlanana Lasarte Aretuan



## Erredakzioa

Abenduaren 5ean, arrastiko 18:00etan, Marie de Jongh konpainiak *Ikimilikiliklik* ikuskizuna antzeztuko dau Igorreko Lasarte Aretuan. Bildurraren gaineko hausnarketa hau, Jokin Oregik idatzitako ipuinean dago oinarrituta.

Mikel Laboak "txirristi, mirristi, gerrena plat, olio zopa, kikili salda,

urru, edan edo klip, ikimilikiliklik" kantetan eban eta imaginario kolektiboan sorgin baten irudia agertzen zan. Marie de Jongh konpainiaren lan honek neska bat dauka protagonista, umetan sorginai bildurra eutsena eta sorgin bihurtuko dana. Protagonistek kontetan dau urteak aurrera egin ahala, zelan joan dan bildurrak gainditzen, "sorgin" bihurtu dan andra edadetua izan arte.

## MUSIKEA

## Arima hari laukoteak kontzertu bi eskainiko ditu Areatzako komentuan

Abenduaren 5ean, Arima hari laukotea eta Daniel Acebes txeloi-joleak, The Beatles, Queen, Los secretos eta beste hainbat talderen abestiak joko dabez biola, txelo, bibolin eta ahotsetara moldatuta. Hilaren 19an be, beste kontzertu bat eskainiko dau Arima laukoteak. Honetan, musikearen historia errepasauko dabe. Kontzertu biak arrastiko zazpiretan izango dira. Izena aurretik emon behar da Areatzako udaletxeko telefonoan, hilaren 3ra arte abenduaren 5eko kontzerturako, eta hilaren 17ra arte, 19ko kontzerturako.



## Erredakzioa

Taldea, Pablo Val (bibolina) eta Diego (txeloa) anaiak, Maria Diaz-Canejak (bibolina) eta Asier Arabolazak (biola) osotuten dabe. Arabolazak erantzun ditu BEGITU-ren galderak.

## Zelan sortu zan taldea?

Taldea Bilboko Orkestra Sinfonikoko lagun eta lankide batzuek osotuten dogu. Oin dala bost bat urte ezetu genduan alkar eta harrezkerotik askotan jo izan dogu BOSen kamara kontzertuen zikloan, laukote, boskote edo seikoteetan, oin dala lau urte hari laukote hau sortzea ebatzi genduan arte.

## Areatzan kontzertu bi emongo dozuez. Arratiara zatozen lehenengo aldia da?

Viçent Zaragozaren bitartez ezetuten dogu Areatza. Bera BOSeko perkusionistea da eta badira urte batzuk Areatzan bizi dana. Berak ipini ginduzan Udalgaz hartu-emonetan eta urtea amaitu baino lehen kontzertu batzuk eskaintzeko interesa eukiela esan euskuen. Guk proposamen batzuk egin

genduzan eta sano pozik gagoz aurrera atera diralako.

## Abenduaren 5ean, txeloi-jole batek lagunduta rock-pop kantauak joko dozuez, ezta?

Bai, hala da. Programa hori Daniel Acebes txeloi-joleagaz joko dogu Areatzan, lehenengoz. Mundu mailako estreinaldia! kar, kar. Ha-ta guzti be, ez da rock-a instrumentu klasikoakaz buztartzen dogun lehen esperientzia. Arima laukoteak, Bilboko Euskalduna Jauregian Elvis Costello-ren abesti ziklo bat jo genduan eta publikoari asko gustetan jakon musikea da. Izan be, harritu egiten da jentea eta kontzertu areto "klasikoetara" beste musika mota batzuk entzuteru ohituago dagozan beste entzule batzuk erakarteko balio dau. Jenteari gustetan jako, sano gustetan jako.

Acebes gure orkesteagaz hainbatetan kolaborau dauan laguna da. Eta txelista klasikoak izateaz gainera, rock kutsua be badauka "El Chelista" ezizenagaz. Kontzertu honetan abesti batzuen berak egindako moldaketak joko doguz eta 1960ko hamarkadatik hasita eta gaur arteko pop-

rockaren errepasoa egingo dogu. **Hurrengo kontzertuan barriz, hilaren 19an, musika klasikoak joko dozuez.**

Bai. Hilaren 19an musika klasikoari erreparauko deusagu. Mozart-en laukoteetarako piezak eta filmetakoak be bai. Piezak aukeratu doguz Ertarotik gaur egunera arte egon diran musika estiloak erakusteko. Esan lei, musikea denporamakina balitz legez erabiliko dogula, jentek, bere eserlekutik, leku eta sasoi askotara bajeatuko.

Atzen finean, kontzertu bi honetan, gustuko dogun musikearen arpegi bi erakutsiko doguz. Horrek hunkitu eta dardarea eragiten deusku. Egun baten rocka eta bestean musika klasikoak, baina guretzat ez dira hain desbardinak. Musikeak, momentu jakin bateko biziteko modu bat eta sentimentu batzuk transmitiduten dauz eta bardin-bardin hunkitu gaitez oin dala hiru mende konposatutako musikeak edo gaur egungoak. Sentimentuak ez dira hainbeste aldatu eta horreek adierazoteko moduak be ez.

Gogo handia daukagu lan hau aurkeztuteko eta espero dogu publikoak guk beste gozatutea.



## AZOKA

### Durangoko Azoka online izango da aurten

Aurten ez da egongo erakusmahairik Landakon eta produktu guztiak denda birtuanean salduko dira. Zuzeneko egitaraua egongo da aforo mugatuagaz.



#### Erredakzioa

Durangoko Azokako webgunean egongo da denda birtuala eta bertan erosi ahal izango dira produktuak abenduaren 4tik 8ra bitartean. Horixe izango da salerosketarako gune bakarra aurten.

Kontzertuak, berbaldiak, proiektzioak eta abarrek espazio bi izango ditue, Landako gunea eta Plateruena, azokako bost egunetan. Aforo mugatua izango da eta alde zuzenetik erreserba egin beharko da.

#### Daren premia

Aurtengo edizioaren aurkezpenean, Nerea Mujika Gerediaga alkarteko presidentek "errazena edizioa bertan behera ixtea" izango litzatekeen arren, denda online eta egitaraua zuzenean egitea ebatzi dabela esan eban. Izan be, bere ustetan, kultureak inoz baino gehiago behar dau Azoka; sortzaileak behar dabe plazea; argitaletxe eta diskoetxeak erakusleioa; eta jenteak zuzenekoak bizitea eta nobedadez gozatzea.

## KULTUREA

### Umeentzako antzerkia eta kontzertu bi Diman

#### Erredakzioa

Herriko alkarteak antolatuta, hiru jardura egongo dira, abenduko lehen hamabostaldian. Hilaren 5ean, 19:30ean, Amorante musikariaren kontzertua eskolako kamaran; hilaren 11n, *Futbolariak eta printzesak* umeentzako antzerkia, 18:00etan, frontoi handian eta hurrengo egunean, hilak 12, Suger Dimako taldeak kontzertua eskainiko dau Abaroa Aretoa 13:00etan.

Dimesten Herri Hezitzaileak antolatu dau hilaren 5eko kontzertua, euskera eta kultura kalera aterateko helburuagaz. Folk musika desbardinak (flamenkoa, koplak, Afrikako musika...) nahasten ditu Amorantek. Amorante izen artistikoa hartu eban Iban Urizarrek, bere gustuko musikari biren izenak nahastuz: Rodrigo Amarante brasildarra eta Enrique Morente flamenko kantariarena. Hiru disko ditu kalean, *Amorante* (2016), *Manuela/Brueghel zaharra* (2017) eta *Bat edo hiru* (2020).

#### Genero estereotipoen kontrako antzerkia

Abenduaren 11n, Andraizea andra taldeak antolatuta, Eidabe ekimen kulturalak *Futbolariak eta printzesak* lana antzertuko dau. Topiko sexistakaz apurtu gura

dauan ume eta gaztetxoentzako komedia da. Eszena laburretan zehar, parekidetasunean bizitea gatz egiten daben egoerak aurkezten ditue umorez eta musikak lagunduta. Odei eta Lur ikuskizuneko protagonistak, klasetik iges egin daben neska eta mutila dira. Besteakandik des-

bardin sentiduten dira ez dituelako neska eta mutilai egozten jakiezan arauak bete gura.

#### Suger, rock and roll dimoztarra

Imanol Salvador, Markel Ruiz, Mikel Eizagirre eta Oier Leonardo dira Suger taldeko partaideak. Taldea oin dala urte t'erdia sortu zan baina 2019ko urri lehenengoan emon eben lehenengo kontzertua. Hilaren 12an, 13:00etan, Jai Batzordeak antolatutako kontzertuan, grabau barri daben maketea joko dabe zuzenean, rock and roll estiloko 17 kantu, hain zuzen be.



## DUNBA

### Indarkeria matxistearen aurka

#### Zeberrioko Zubialde eskolako 3. zikloko ikasleak

Zeberrioko Zubialde eskolako 3. zikloko ikasleak gara. BEGITU aldiak idazteko gure txandea heldu da. Jakinda zemendiaren 25ean Andren Aurkako Indarkeria Matxistearen Kontrako Nazinoarteko Eguna dala, ebatzi dogu gai honen inguruan idaztea. Zergaitik? Egoera hau salatu gura dogulako. Testu honen bitartez esan gura dogu andrazko edo gizonezko izanda, danok daukaguzala eskubide bardinak.

#### Zergaitik egun hau? Historia

Andrakanako Indarkeriaren Aurkako Nazinoarteko Eguna ez da aurten bakarrik ospatuko. Historian zehar egun honek garrantzia izan dau. 1960ko zemendiaren 25ean Rafael Truji-

llo diktadorearen poliziak sano modu bortitzean hil ebazan Mirabal ahiztak. Andra horreek Dominikar Errepublikako hiru ekintzaile politiko izan ziran eta euren hilke-

tea oroitzeke mobimentu feministeak data hori hartu eban Andrakanako Indarkeria Sexistearen Aurkako Eguna bezala. Geroago, 1981ean Bogotan (Kolonbia)



Karibeko eta Hego Amerikako lehenengo topaketa feministak egin ebezan. Atzenik 1999. urtean Nazinoarteko Erakundeak Andren Kontrako Bortizkeria Ezabatzeke Nazinoarteko Eguna izentau eban.

#### Azken urteetako datuak

2018an Euskal Herrian 4.000-4.500 andra inguruk salatu ebezan mota bateko edo besteko tratu txarrak; 2019an 4.500-5.000 salaketa jarri ziran indarkeria sexistearengaitik. Hau gitxi baltz, badakigu be 2002tik 2020ra indarkeria matxistek 45 andra erahil dituala Euskal Herrian. Honeek datu ofizialak dira, baina jakin badakigu andra askok ez dabela ezer salatuten, bildurragaitik.

Datu honek ikusita, egoera hau ez dala bidezkoa argi gertzen da. Danon artean honegaz amaitu behar dogu. Gaur egungo gizarteak arazo handi bat dauka eta konpondu behar da. Eskubi-



de bardintasuna aldarrikatzen dogu. Errespetua guztion artean eregi behar dogu. Guztion eskuetan dago honegaz amaitzea! Ez da ez! Eraso sexistarik ez!

## AGENDA

**ABENDUAK 1  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko.

**AREATZA**

Hilaren 5ean Arima hari laukoteak Daniel Acebesegaz batera komentuan emongo dauan kontzerturako eta Arima hari laukoteak hilaren 19an komentuan emongo dauan kontzerturako izen emotea zabalik udaletxeko 94 673 90 10 telefonora deituta.

**ARRATIA**

Abenduaren 4ra arte Euskaraldia.

**IGORRE**

Igorreko Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu ahal izateko, aurretik txandea eskatuta 94 685 25 30 telefonora deituta edo [liburu.igorre@gmail.com](mailto:liburu.igorre@gmail.com) helbide elektronikora idatzita. Astelehen, martitzen, eguen eta barikuetan 10:00etatik 14:00etara, eguaztenetan 16:00etatik 20:00etara.

Abenduaren 9ra arte, Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina. Liburutegian euskerazko liburu bat maileguan hartu, irakurri, fitxa bete eta zozketan parte hartu.

#Igorrenerosi kanpaina opariak amaitu arte.

**LEMOA**

Hilaren 10era arte, 12an izango dan 50 urte baino gehiakogozteko Bingo musikatuan parte hartzeako izena emoteko epea 688 883 686 telefonon.

Liburutegia zabalik arrastiko ordutegian, astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era Kotxepin Kulturunean. Liburuak maileguan hartu eta itzultzeko baino ezin da erabili liburutegia.

**ZEBERIO**

2021eko egutegirako argazkiak aukeratzeko epea zabalik abenduaren 1era arte. Udaletxean bertan edo online Udaleko webgunean.

**ABENDUAK 2  
AREATZA**

19:00etan, *Bakean dagoena bakean utzi* umorezko berbaldia Udaleko Areto Nagusian.

**LEMOA**

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

16:30etik 17:30era, eguazten guztietan, 3. adinekoentzako jarduera fisikoa doban kiroldegian. Izen emotea 688 661 477 telefonon.

**ABENDUAK 3  
ARANTZAZU**

17:30ean, Arantzazuko kultur batzordeak antolatuta, frontoian batu "Euskeraz bizi gure dogu" murala margozteko; 18:30ean, txokolatea parte hartzaileentzat plazan.

**AREATZA**

18:00etan, Euskaraldiko argazki herrikoia plazan.

**ARTEA**

17:00etan eta 18:30ean, (saio bi) Txoborro magoaren ikuskizuna *Gezur*

*gehiegi* eskolan.

**BEDIA**

18:00etan, Gabon Txartelen Lehiaketako sari banaketea frontoian.

16:30etik 19:30era, hilaren 11ra arte, parte hartu daben marrazkien erakusketea frontoian.

18:30ean, Udaleko Bardintasan arloak antolatuta, *Meri, Mari eta Lari* antzerkia frontoian.

**DIMA**

Euskerearen Eguneko ekitaldia.

18:30ean, mezuaren irakurketea; 19:00etan, Aukeran Dantza Konpainiaren, *Maurizia naiz* ikuskizuna frontoian.

**IGORRE**

17:00etan, txistularien kalejirea herritik zehar; 17:30ean, kultura ekintzak hasiko dira Lasarte Aretoan, "Kultura zaparrada". Euskerearen Eguna.

**LEMOA**

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

**ZEANURI**

Euskaraldiaren amaierako ekitaldia.

**ABENDUAK 4  
AREATZA**

Aurrekontu parte-hartzaileak. Inkesta beteteko epea abenduaren 15era arte. Etxeetan buzoneauko da eta *Google Forms*-etik be eskuratu daiteke. Inkestak batuteko buzoi bi dagoz, bata udaletxeko arkupetan eta bestea Añibarro parkean.

**IGORRE**

18:00etan, Espainiako Konstituzinoaren kontrako berbaldia Kiñu Gaztetxean.

**Anariren kontzertua hilaren 13an Lasarte Aretoan**

Anari Alberdi musikariak kontzertua eskainiko dau hilaren 13an, 19:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Musika munduan hogeitertetik gorako ibilbidean, bakarkako 9 disko kaleratu ditu. *Anari* (Esan Ozenki, 1997) izan zan lehenengoa eta *Epilogo bat* (Bidehuts, 2016) atzena. *Zebra* (Meta, 2005), *Irla izan* (Bidehuts, 2009) eta *Zure aurrekari penalak* (Bidehuts, 2015) dira ezagunenetako batzuk. Hainbat kolaborazio eta beste artista batzuzak alkarlaneko proiektuetan be hartu dau parte.

2018an, Adarra saria jaso eban, "hogeiterteko ibilbidean, berbai garrantzia eta musikari nortasuna emoteagaitik".

**LEMOA**

19:00etan, Mikel Inuntziaga "Inunen kontzertua, Sergio Mayoral eta Bihotz Gorospagaz Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

**ABENDUAK 5  
AREATZA**

19:00etan, Arima hari laukotearen kontzertua Daniel Acebes-egaz komentuan.

**Abenduak 5,  
19:00 Arima hari laukotea  
Daniel Acebesekin  
Komentuan****DIMA**

10:00etan, *Autodefensa feminista* 12 eta 14 urte bitartekoentzat Elexalden.

19:30ean, Amorante abeslariaren kontzertua eskolako kamarin, Abizariet antolatuta. Aforoa bermatzeko izena emon behar da [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org) helbidean edo 685 759 997 telefonon.

**IGORRE**

18:00etan, Marie de Jongh konpainiaren *Ikimilikiliklik* antzerkia Lasarte Aretoan.

**ABENDUAK 6  
IGORRE**

16:30ean, zinea *Stardog & Turbocat* (euskeraz); 18:45ean, *Hil kanpaiak* Lasarte Aretoan.

**ABENDUAK 9  
LEMOA**

09:30ean, 3. adinekoentzako ibilaldi gidatuak. Gudarien parkean.

16:30etik 17:30era, eguazten guztietan, 3. adinekoentzako jarduera fisikoa doban kiroldegian. Izen emotea 688 661 477 telefonon.

**ABENDUAK 10  
ARRATIA**

17:00etan, Berbalagun-ek antolatuta, Antzasti Euskaldunon etxera bisiteta. Izena emon hilaren 7a baino lehen [arratia\\_berba@dek.eus](mailto:arratia_berba@dek.eus) helbide elektronikon edo 662 199 033 telefono zenbakira WhatsApp bialduta.

**IGORRE**

19:00etan, zinekluba *Una mujer fantástica* (Txile, 2017) Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

09:30ean, parke osasungarria. Nagusientzako ariketa fisikoa sustatzeko tailerrak Ibaizabal parkean.

**ABENDUAK 11  
DIMA**

18:00etan, *Futbolariak eta printzesak* umeentzako antzezlan frontoian.

**ABENDUAK 12  
DIMA**

13:00etan, Jai Batzordeak antolatuta, Suger taldearen kontzertua Abaroa Aretoan.

**IGORRE**

16:30ean, zinea *Trolls 2: Gira mundial*; 18:45ean, *Sentimental* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

17:00etan, Bingo musikatua kiroldegiko goiko kantxan 50 urtetik gorakoentzat.

**ABENDUAK 14  
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak batzea Liburutegian.

# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK ETXEA ALOKAIKUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

### PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzialean. Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

### ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizaua egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: [narao\\_esparza@hotmail.com](mailto:narao_esparza@hotmail.com) (lehen hitzordua doban).

### KLASEAK EMOTEN DIRA

Institutuko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, marrazketa tekniko, teknologia... klaseak eskaintzen dira. Informazio gehiagorako deitu 608 381 984 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako sarrera bina Anariren kontzerturako.

Borja Estankona (Artea)  
Maria Jesus Iturriaga (Artea)



**begitu**

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**umean moda**  
**sema**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [sema@topagunea.com](mailto:sema@topagunea.com)

**Kepa Intxausti**  
TAXI ZERBITZUA  
609421222  
IGORRE

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**begitu**

**Dia %**  
**PEDRO AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 - 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-40-54

**KIRRU ILEAPAINDEGIA**  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TEL. 94 631 92 00

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
[zekutzejatetxea@hotmail.com](mailto:zekutzejatetxea@hotmail.com)

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**Pinturas Anatia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**begitu**

**BIZARGINAK**  
-Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta bukanduten dogu  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

LEMOA  
946 31 44 06  
ZABAL@ALKIZABAL.NET

# ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI  
www.alkizabal.net

BASAURI  
946 51 03 99  
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



**INSTANT UPRIGHT**  
QUALITY & STRENGTH YOU CAN TRUST  
**BANATZAILEA**



**JCB**  
**BANATZAILEA**



**HIKOKI**  
**BANATZAILEA**



**POWER PRODUCT**  
**GENERGY**  
**BANATZAILEA**



**filippini**  
GENERATING SETS  
**BANATZAILEA**